

WEACHPORT AUZOA

Amak beti dio leihotik urruntzeko, ez baitu nahi nik bizilagunekin begiradak gurutzatzea. Nire ahizpak, Neastarjek (denek Nea deitzen dugun arren), ulertzekoa dela dio. Nik ez dut horrela uste. Auzokideek oso jatorrak dirudite, eta ikusten dudanagatik, ni naiz Weachport auzoko neska bakarra lagunik ez duena. Neak beti berdina esaten dit, aitak eta amak bizitza gogorra izan dutela, eta ez dela harritzekoa besteetaz ez fidatzea. Izan ere, alde egin behar izan zuten izen arraroko lurralde batetik guda zela eta. Baina nik ez dakit ezta guda zer den, eta etxean galdetzen dudan bakoitzean, denek badute zeozer egiteko niri kasu egitea baino garrantzitsuagoa.

Neak, ordea, bai hitz egin zidan egun batean horri buruz. Esan zuena egia bada, guda borroka bat da, oso gogorra dena. Jendeak beste jende bati min egiten dio, eta inork ez daki zergatik. Nik ere guda egunero bizi dut, Luken eta Peio, adibidez, atzo borrokatu ziren, eta min egin zioten elkarri. Nik ihes egin nuen, horrek esan nahi du, aita eta ama bezala egin nuela. Baina guztiek bagenekien zergatik gertatu zen, Lukenek Peioren jostailuzko autoa nahi zuen, baina Peiok ez zion uzten. "Gudaren okerrena, kanpoko inork ez gelditzea da", hori esan zidan egun batean Neak. Baina nire kasuan, andereño Maitanek gelditu zuen, beraz, ez dakit zertaz ari zen, egia esanda. Esan dudan bezala, amak beti dio leihotik urruntzeko, baina justu horixe da nire eguneko momenturik gogoko eta kuttunena.

Horregatik, ikastolatik etorri berri garenean, Neak eta biok auzokideak ikusten ditugu.

Orduantxe etorri zen Nea. Bere motxila urdina lurrera bota zuen eta ohera hurbildu zen. Nire logelan dago etxeko leihorik handiena. Ohearen alboan dago, eta hor esetzen gara beti leihotik begiratzeko.

— Nea, zergatik da Weachport hain txikia? Telebistan ikusten ditudan telesailetan dauden etxeek gure auzo osoa baino handiagoak dirudite.

Nire ahizpak beti dena kontatzen dit, guzti guztia, eta gainera, modu ulergarri batez, ez aitak eta amak bezala. Berarekin daukat harremanik sendoena, zalantzarik ez.

— Uier dezazun, Nahari. Telebistan ikusten dituzun etxeak benetako etxeak dira, bai, baina bakarrik gutxi batzuen errealitatea da. Badago ere jende asko, ezin duela ordaindu ezta pisu txiki bat. Geroz eta diru gutxiago, etxea ere geroz eta txikiagoa.

— Orduan diru asko lapurtzen badizute, zure etxea txikia egingen da? — galdetu nuen, Nea harriz. Uste dut harritu nuela nire galdera oso ona zelako. Segundu batzuek isilik gelditu zen, baina gero segitu zuen.

— Horrelako zerbait. Kontua da, auzo hau diru gutxi daukaten pertsonontzat egina dagoela. Egoera desberdinak pasatu dituzte, batzuek besteak baino larriagoak.

Orduan McPatric anderea agertu zen bere leihotik. Ile kizkur eta horiko emakume potolo bat da. Begi txikiak eta urdinak ditu, eta bere ahotsa oso grabea da beti.

— Adibidez, McPatric anderea. Bere senarra hil egin zen eta berak formakuntza profesionalik ez zeukanez, diruaren falta somatu zuen eta hona etorri zen — azaldu zidan.

— Berari ere txikitu zitzaion etxea?

— Bai — esan zuen ni besarkatuz.

Orduan oihu batzuk entzun ziren, eta biok izutu ginen. Weachportek plaza karratu bat zeukan, eraikin triste, luze eta marroiez inguraturik. Hor, plazan, mutil eta neska talde bat zegoen, eta mutil bat eraikin baten ormaren kontra zegoen.

— Zer gertatzen da hor? — galdetu zuen Neak.

— Hori Almahad da, auzoko mutil bat. Marrokotik etorria denez, bere azal kolorea marroia da. Horregatik "Kaka" deitzen diote — azaldu nion, egun askotan ikusita dut eta.

— Ba bagoaz gelditzera! — oihukatu zuen Neak, ohetik altxatzen zen bitartean.

— Zergatik? — galdetu nion, ezer ulertu gabe, ni ere kolorezko loredun maindireko ohetik altxatuz — Ez da erraza haiek gelditzea!

— Nahari. Behar bada hau ez duzu ulertuko, baina oso argi izan, eta hau bai dela garrantzitsua. Injustizia bat gertatzen ari denean, errazena ez ikusiarena egitea da. Baina ia egoera guztietan zailena dena, hoberena dena da. Ulertzen nauzu? Hau guda bezalakoa da, soilik egoera murriztu batean. Ixilik geratzen bagara, leiho hau ixten baldin badugu, ez du ezertarako balio izango guk ikusi izana. Eta zer jipoi bat ematen badigute? Laguntza eskaini dugu, hori da aurrera pausu zailena. Beharbada guk ere ordainduko dugu, baina aztarna bat utziko dugu mutikoaren barnean, eta bestearenean ere, ikusiko baitu horrela bizitzan ez dela jokaera hori onartzen. Zer gertatuko litzateke bi herrialdeko borroka batean, munduko beste guztiak altxatuko balira, horietako baten kontra?

— Multzoak irabaziko lukeela — pentsatu nuen.

— Hori da! — eta zapatilak jantzita, gelatik alde egin zuen korrika eta presaka.

Amak beti dio leihotik urruntzeko, baina orduan baneukan inoiz baino gogo handiagoa geroz eta gehiago hurbiltzeko, eta hori egin nuen.

Nea hor agertu zen, multzoaren eta Almahaden erdian.

— Zer gertatzen da, "Kaka"? Zure neska-laguna? — galdetu zuen batek.

Orduan, gelan nire neba handia agertu zen, Rusbel. Leihotik begiratzen ari nintzela ikusita, bera ere hurbildu zen leihora gertatzen zena ikustera. Baina konturatu nintzenerako, ez zegoen hor inor. Ez multzoa, ez Almahad, ez Nea. Azkeneko hau gure atzetik agertu zen.

— Uff! — lasaitu nintzen berarengana azkar batean nindoan bitartean, bera besarkatzera.

— Ikusten? Handiagoa naizelako izutu ditut, baina hori izan da egin nezakeen hoberena. Lehen aipatu dituzu telesailtako etxeak, baina pertsonak ere asko esaten digute, Nahari. Askotan bakarrik pertsona txuriak, beste sexuko jendea maite duten pertsonak, pertsona politak... agertzen dira. Eta bai, existitzen dira, etxeak bezala, baina beste jende mota ugari ere badago. Beharbada ez dira hain txuriak, baina pertsonak dira. Pertsonak gara. Mundu bezala funtzionatu beharko genuke, ez herrialde bezala. Herrialdeak bakarrik mapetako marra simple batzuk dira. Ez dauka zentzurik pertsonak herrialdeetan sailkatzea denak berdinak bagara.

— Ez dut piperrik ulertu — iritzia eman nuen, Neari aurpegian irrifarre bat marratuz.

— Ba niri munduko zentzuzkoena iruditzen zait — esan zuen Rusbelek.

— Hori da kontua. Gehienetan munduko zentzuzkoena, nabarmenena iruditzen zaiguna, da gehien ulertzea kostatzen dena. Edo, egoera askotan, gehien ulertu nahi ez dena, bereziki alde irabazlean baldin bazaude.